

SARRERA

Enpresan 5 bazkide gara, 5 urteko esperientzia dugu eta urtero bezero berriak gehitzen dira gure zerrendara. 3000 ikasle baino gehiago joan dira gure bitartez atzerrira hizkuntzak ikastera. Normalean, behin gure zerbitzuak kontratatzen dituzten eskolak errepikatu egiten dute, guregan konfiantza dutelako.

Enpresa osatzen dugun bazkidetariko bakoitzak rol jakin bat betetzen du gure gaitasun eta espezializazioaren arabera. Lana modu egokian antolatzea eta banatzea ezinbestekoa da; horregatik, gure taldeko kide bakoitzak espezializatuta dagoen arloko atazak burutzen ditu, aurretik eskuratutako ezagutzak eta esperientziak baliatuz. Horrela, proposatzen zaizkigun erronka guztiei aurre egiteko baliabide zein prestakuntzak ditugu eta proiektua modu eraginkorrean garatu dezakegu.

Gure helburu nagusia gazteei hizkuntza berriak ikasteko prozesuan esperientzia aberasgarri eta baliagarria eskaintzea da. Horretarako, elkartrukeak antolatzen ditugu. Jarduera hauek ikasketa tradizionaletik ateratzeko eta gazteek bereganatutako teoria egoera errealean praktikan jartzeko baliagarriak dira eta ikasketa-prozesua arinagoa bilakatzen dute.

Eskaintzen dugun esperientzia hauen bidez, gazteek beste kultura, hizkuntza eta pertsona berriak ezagutzeko aukera dute. Horrez gain, autonomia, konfiantza eta komunikazio-gaitasunak lantzen dituzte, zeintzuk etorkizunean pertsonalki eta profesionalki prestatuta izateko ezinbesteko gaitasunak diren.

Hortaz, gure proiektuaren bidez hizkuntza baten ikasketaz aparte, pertsonalki baliagarriak diren hainbat balio lantzen ditugu. Gazteak etorkizunean aurki ditzaketen egoera errealean islatzen ditugu, eta horiei aurre egiteko baliabide praktikoak garatzen laguntzen diegu. Bestalde, trebetasun sozialak garatzen dituzten bitartean, hizkuntza berri bat ikasten dute.